

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Hasierako onarpena ematea 5/2016 kreditu gehigarriaren espedienteari

Erriberabeitiko-Udalak, 2016ko abuztuaren 30eko aparteko bilkuran, 5/2016 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, espediente hori hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote udalbatzari.

Kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onartutzat joko da adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Erriberabeitia (Rivabellosa), 2016ko abuztuaren 30a

Alkatea

PEIO RUIZ GARCÍA